



## **TXOSTEN EKONOMIKOA – 2014ko KONTU OROKORRA**

Munduko ekonomiak ez ditu beteko 2014. urterako egin ziren hasierako hazkunde aurreikuspenak. Lehenengo seihilekoan -eta bereziki, lehenengo hiruhilekoan- munduko ekonomiaren hazkundera espero zena baino nabarmen txikiagoa izan zen. Munduko jarduera eta merkataritza aurreikusi baino ahulagoak izan ziren, eta horretan eragina izan zuten Estatu Batuetako negu gordinak eta izakinen zuzenketak, Ukrainiako gatazkak, Latinoamerikako ekonomien desazelerazioak eta eurogunea izan duen geldialdiak. Hala ere, bigarren seihilekoari dagozkion datuak, orokorrean, hobekiak izan dira. Baina, badira hazkundearen ahultasuna agerian jarriko duten eragileak, besteak beste: mundu-merkataritzaren ahuleria, finantza-merkatuen hegakortasuna, interes tasen igoera posible batek izan dezakeen eragina, petrolioaren prezioaren efektua, eta, Espainia edo Japonia bezalako ekonomia garrantzitsu batzuen geldialdia eta deflazioa.

Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) 2014. urterako egin dituen estimazioen arabera, munduko ekonomia %3,3 haziko da. Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko hazkundeak finkoak izaten hasiak dira, eta, euren lan-merkatuen egoerak ere hobera egin du. Eurogunean, berriz, hazkundera desberdina da herrialdeen arabera, eta, badirudi, 2015. urtean joera ere halakoa izango dela. Japoniako susperraldia ez da egonkorra eta Txinako hazkunde-erritmoa jaitسي egin da, sendoa bada ere.

NDFk Eurogunerako egin duen proiektzioan 2014rako %0,8ko hazkundera ezarri du, 2015erako %1,2 aurreikusi du eta 2016rako %1,4. Hala ere, kideek hazkunde desberdina izango dutela aurreikusten du. Herrialde bakoitzeko estatistika erakundeek 2014rako argitaratu dituzten datuen arabera, Alemania %1,6 hazi da, Frantzia %0,4, Italia %0,4 uzkurtu da eta Espainia, berriz, %1,4 igo da. Orokorrean, kontsumo pribatua suspertzen hasi da, lan-merkatua gradualki hobera doa, esportazioak gorantz ari dira eta kreditua zabaltzen hasia da. Inflazioak maila baxuan jarraitzen du eta, ondorioz, EBZk neurri gehigarriak hartu beharrean egon daiteke prezioen egonkortasuna lortu ahal izateko. Eurogunea suspertzen hasia dela badirudi

## **INFORME ECONÓMICO CUENTA GENERAL 2014**

El crecimiento mundial en 2014 no va a cumplir las expectativas de crecimiento iniciales. Durante el primer semestre, aunque más concretamente en el primer trimestre, el crecimiento de la economía mundial fue notablemente inferior al esperado. La actividad y el comercio mundial fueron más débiles de lo previsto a lo que contribuyeron un invierno muy frío y una corrección en las existencias en Estados Unidos, el conflicto de Ucrania, la desaceleración de las economías latinoamericanas y el estancamiento de la zona euro. Sin embargo, los datos correspondientes al segundo semestre, en general, han sido algo mejores. No obstante, hay factores que ponen de manifiesto la fragilidad del crecimiento, como pueden ser la debilidad del comercio mundial, la volatilidad de los mercados financieros, el impacto que pueda tener un posible incremento de las tasas de interés, el efecto del precio del petróleo y el riesgo de estancamiento y deflación de algunas importantes economías como la europea o la japonesa.

Las primeras estimaciones apuntan a un crecimiento mundial del 3,3% para el 2014 según el Fondo Monetario Internacional (FMI). Los Estados Unidos y el Reino Unido empiezan a consolidar su crecimiento y mejoran sus mercados laborales. El crecimiento en la zona euro sigue siendo desigual y parece que seguirá la misma tendencia el año 2015. La recuperación de Japón está siendo inestable y China ha desacelerado su ritmo de crecimiento, aunque sigue creciendo a un ritmo sólido.

La proyección realizada por el FMI para la Zona euro establece una tasa de crecimiento del 0,8% en 2014, para 2015 prevé un 1,2% y un 1,4% para 2016. Sin embargo, prevé un crecimiento desigual. Según los datos publicados por los institutos de estadística de cada país, en 2014, Alemania ha crecido un 1,6%, Francia un 0,4%, Italia se ha contraído un 0,4% y España ha avanzado un 1,4%. En términos generales, el consumo privado ha empezado a recuperarse, el mercado de trabajo mejora gradualmente, aumentan las exportaciones y el crédito empieza a fluir. La inflación sigue estando en niveles bajos lo que puede obligar al BCE a barajar medidas adicionales para conseguir una estabilidad de precios. Aunque la recuperación de la zona



ere, ez dira ahaztu behar Europan gertatzen ari diren izaera geopolitikoa duten gertakarien eraginez sortu daitezkeen arriskuak, bereziki Ukraina eta Greziakoak.

Azpirarratzekoa da Espainiaren kasua nahiko bitxia dela: krisialdian zehar, sistema finantzarioa onbideratzeko erreskatea eskatzera ere behartuta egon ondoren, euro gunean gehien hazi den herrialdeetako bat bilakatu da  $-1,4\%$ , batez ere familien kontsumoak eta inbertsioak bultzatuta. NDFk egin dituen aurreikuspenetan, datozen bi urteetarako euroguneko hazkundearen buru kokatzen du. Hala ere, itxaron beharko da, eta ikusi, Espainiarengan izan dezaketen eragina, besteak beste, euroguneko desazelerazio orokor batek, haren langabezia tasak eta zor maila altuak.

Bestalde, Estatu Batuetan 2014. urtea oso hazkunde-datu eskasarekin hasi zen, lehenengo hiruhilekoan  $0,1\%$  urtekotua, hain zuzen ere. Hirugarren hiruhilekoko datua, berriz, oso bestelakoa izan zen,  $5\%$ eko urtekotua, eta seguruenik, urtea  $2,4\%$  inguruko hazkundearekin itxiko du. Hazkunde horretan ekarpen handiena izan dute, gastu pribatuak, esportazioek, inbertsioak eta gastu publikoak (azken bi hauetan bakoitzaren osagai desberdinek ekarpen desberdina izan duten arren). AEBtako ekonomiak batez beste 250.000 mila enplegu sortu ditu hileko, eta urte amaieran langabezia tasa  $5,6\%$ koa izan da. Merkatua hobera egiten ari bada ere, soldatak ez dira igotzen ari, eta ondorioz, bada oraindik hobera egiteko bidea.

Txinako ekonomiak desazelerazio prozesua hasi zuen 2014an. Txinatar BPGa  $7,4\%$  hazi da ( $7,8\%$  aurreko urtean), gobernua ezarritako helburuaren hamarren bat azpitik. Horrela, ekonomia txinatarraren moteltze-igurikimenak bete dira, esportazioetan eta kostu baxuan oinarritutako ekonomiatik, barne eskarian oinarritutako eredu berri batera egiten ari den ibilbidean. Argitaratutako azken zifren arabera, higiezinen sektorea  $10,5\%$  igo da – 2013an baino askoz gutxiago-, txikizkako salmentak erritmo handiagoan hazi dira  $-12\%$ , eta enpleguari dagokionez, Gobernuarentzat gutzitako lehentasuna zuena -helburua 10 milioi enplegu sortzea zen-, 13,2 milioi lanpostu sortu dira.

euro parece comenzar, no hay que olvidar los riesgos que se pueden derivar de los acontecimientos de carácter geopolítico que están teniendo lugar en Europa, especialmente en Ucrania y Grecia.

Hay que destacar que el caso de España es un tanto peculiar ya que tras pasar una fase durante la crisis en la que incluso tuvo que pedir rescate para sanear el sistema financiero, se ha convertido en uno de los países que más ha crecido en la zona euro, el  $1,4\%$ , impulsado principalmente por el consumo de los hogares y la inversión. En las proyecciones realizadas por el FMI, le sitúan como líder en el crecimiento de la eurozona para los dos próximos años. No obstante, habrá que esperar y ver como afectan a España entre otros, un marco de desaceleración generalizada de la zona euro, su nivel de desempleo y la elevada deuda.

Por su parte, Estados Unidos comenzó el 2014 con un dato de crecimiento muy pobre, un avance para el primer trimestre del  $0,1\%$  anualizado. Este dato contrasta con un espectacular crecimiento del  $5\%$  anualizado para el tercer trimestre y previsiblemente se cerrará el año en torno a un crecimiento del  $2,4\%$ . Los factores que más han contribuido en el crecimiento han sido el gasto privado, las exportaciones, la inversión y el gasto público (aunque en el caso de estos dos últimos, con una desigual aportación de sus distintos componentes). La economía de EEUU ha generado una media de 250.000 empleos al mes, lo que sitúa la tasa de paro a cierre del año en el  $5,6\%$ . A pesar de que el mercado está mejorando, los salarios siguen estancados, por lo que todavía hay recorrido para la mejora.

La economía china comenzó un proceso de desaceleración en 2014. El PIB chino ha crecido un  $7,4\%$  ( $7,8\%$  el año anterior), una décima por debajo del objetivo de su gobierno. Así, se confirman las expectativas de ralentización de la economía china en su viraje de un modelo económico basado en las exportaciones y bajo coste, hacia un nuevo modelo basado en la demanda interna. Según las últimas cifras publicadas, el sector inmobiliario ha crecido un  $10,5\%$  -aunque muy por debajo de 2013-, las ventas minoristas han crecido a un ritmo superior -un  $12\%$ - y en cuanto al empleo, que se había convertido en una prioridad absoluta para el Gobierno, con el objetivo de crear 10 millones de



Japoniari dagokionez, ekonomia suspertzen hasi da, erritmoa oso geldoa den arren. Japoniar ekonomiak -barne kontsumoan oinarritua dagoenak (BPGaren %60)-, urteko bigarren hiruhilekoan erorketa nabarmena jasan zuen apirilean gobernuak BEZa igo ondoren. Besteak beste, esportazioak eta industria-produkzioa ere jaitsi ziren. Hala ere, 2014aren bukaerako egoera hobea izan da, kanpo eskaria hazi da eta kontsumitzaileen eta enpresen konfiantzak hobera egin du.

empleos, según el instituto estadístico chino se han creado 13,2 millones de puestos de trabajo.

En cuanto a Japón, parece que su economía empieza a recuperarse aunque a un ritmo muy lento. La economía nipona basada principalmente en el consumo interno (60% del PIB), sufrió una importante caída en el segundo trimestre del año, como consecuencia del incremento del IVA que el gobierno llevó a cabo el mes de abril. También disminuyeron entre otros las exportaciones y la producción industrial. Sin embargo, a cierre de 2014 la situación mejoró, con un incremento de la demanda externa y una mejora de la confianza empresarial y de los consumidores.